

BERTSOLARITZA ETA GENEROA

Judith Montero Imaz (musikaria)
Maialen Lujanbio Zugasti (bertsolaria)

Hitzaldia

2007-07-18, Eibar. UEU eta EHBek antolatutako Bertsolantegia ikastaroaren barruan

Transkribatzailea: Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo

**Judith Montero Imaz:*

“Nik gai hau landu dut, “in situ” tokatu zaidalako. Gaia bera ez da bereziki interesgarria, beste gai interesgarri asko daude, esaterako, arrazismoa ere oso interesgarria da, baina nik ez dut bereziki landu”.

“Generoaren araberako instrumentu banaketa dago. Arpa, biolina, painoa... emakumeentzat. Gitarra, bateria, saxoa... mutilentzat”.

“Txarangetan dagoen giroa matxista da, txiste matxistak daude, kontu matxistak... Gizonezkoen mundua da. Zenbat eta giro intelektualagoa, orduan eta gisa horretako komentario gutxiago entzuten dira”.

“Giro matxista horretan, norbera deseroso, bere lekutik kanpo sentitzen da, eta salbatzen duena, musikari dion maitasuna da”.

“Giro matxista horretan, norberak egiten dituen oharrak, beti ‘pelmarenak’, ‘corta-pedosarenak’ dira. Oso bakarririk sentitzen nintzen, inork ez ninduela ulertzen sentitzen nuen. Estitxu eta Ixiar Eizagirrerekin gaiak hitz egitean sentitu nuen elkar ulertzen genuela. Nik beraiek esanak ulertzen nituela, eta beraiek nireak”.

“Musikan asko baloratzen da birtuosismoa (azkartasuna, ozentasuna...). Jarrera maskulinoak dira horiek, eta bestelako erreferenteak falta zaizkigu arlo horretan ere, ni ez naiz hor reflejatua sentitzen”.

“Jarrera fisikoari dagokionez, gizonak jarera lasaiagoa, irekiagoa dute; emakumeek, itxiagoa”.

“Akats bat egiterakoan gizonetako batek, berak une horretan egin duen akats gisa ulertzen du. Emakume batek akats bat egiten duenean, bere burua osotasunean kuestionatzen du, ‘txarra naiz’”.

“Gauzak hobetzen ari diren? Nik batzuetan sentitzen dut gizon helduek jarrera hobea dutela – nahiz beren puntu paternalista duten maiz-, hainbat gizon gazte baino. Gizon gazte hainbatekin gertatu zait ez entzuna sentitzea, nire hitzari ez zaiola baliorik ematen sentitzea”.

“Erosioaren gaia hor dago: tantaz tanta, asko nekatzen zara, eta bizitza osoa borroka batean pasatu nahi ez duzunez, autozentsuratu egiten duzu maiz zure burua, ezin baituzu desegokia iruditu zaizun gauza bakoitzaren gainean komentariotxo egin”.

“Ez dakit zein den konponbidea aurrera begira”.

****Maialen Lujanbio:***

“Judith subjektua musika zen, baina bion gaia berbera da. Eta debatea gai orokorrean zentratu behar da, ez detaileetan”.

“Izugarria da gizon eta emakumeen artean dagoen amildegia gai honen inguruan hitz egiterakoan. Kezkatzekoa da. Gizonek ez dute gaia berena sentitzen”.

“Denoi posizioa aldatzea eskatzen digu gai honek. Batzuei ez zaie erraza egingo”.

“Emakumeen sentipenak ulertzeko, gizonek pentsa bezate nola sentitzen diren erabat emakumez inguratuta daudenean, `emakumeen´ gaiei buruz hitz egiteko obligazioarekin. Halako sentipena izan dugu emakumeok egoera askotan, `gizonen gaiez´ hizketan, denbora askoan”.

“Bertso munduko emakumeen artean, askotan atera da gai hau. Gogoak, beharrak eskatuta bildu izan gara behin baino gehiagotan. Bildu gabe ere, etengabe ateratzen da gaia”.

Nire ibilbidea, kronologikoki:

“Bertso eskoletan haurrak batzen dira. Neskak eta mutilak ez gara heziketa berberarekin joaten. Mutilak espazioa okupatzera (fisikoki, ahotsarekin...) ohituta daude”.

“Nesken kasuan, a priori kuestionatuak dira; mutilek a priori errekonozimendua dute, ez dira kuestionatuak”.

“Bertso eskoletako heziketa nahiko estandarra izan da, denentzat berdina. Eta abiapuntua ez da denentzat berdina. Gizarteko faktoreek eragin handia dute. Hala ere, bertso eskolan baino gehiago igerriko da hori guztia plazan”.

“Benetan, emakume sortzailearen arazoa, sozializazioa gertatzen denean nabarmentzen da. Ez soilik emakume sortzailearena, emakumearena oro har. Emakumeak jende aurrean hitza hartzen duenean, gizartera, taldera bere hitza ateratzen duenean. Zer esanik ez 200 lagunen aurrean hartu behar duenean hitz hori, edo 2000 pertsonaren aurrean. Eta arazoa da jendeak nola pertzibitzen duen emakumearen hitz hori”.

“Arazoa da baita ere, emakumeak zein segurtasun daukan bere hitzarekin, neskak ez direlako bere buruaz, bere hitzaz seguru egoteko eta sinesteko zer esana badutela. Neskak ez nabarmentzeko, diskrezioan egoteko hezitzen dira, isilik bazaude kasik hobe. Orduan, hitza hartu behar duzunean, ozen hitz egin behar duzunean, zure barruan izugarrizko borroka sortzen da. Bertso eskoletan, eta nerabezaroan dagoen arazo handiena da autokonfiantza falta, neskak ez daukala konfiantzarik bere buruarekin. Hori, bertsotan ez ezik, beste hainbat esparrutan gertatzen da”.

“Bertso eskoletako irakasleek esaten dute, neskak, hiper-perfekzionistak direla. Eta hiper-autokritikoak, destruktiboak izateraino. Gizarteak ere maila altua exigitzen dielako, a priori onarpenik ez dutenez, maila gorena eskatzen zaie. Eta `gizartea´ diodanean, badirudi kanpoko gauzez ari naizela. Ez. Maila sutilean gertatzen denaz ari naiz, gure buru barruan sartuta daukagun gizarteaz. Eta gu geroni ere gizartearen parte. Nik hor kokatzen dut 15-16 urtetan hainbat neskak zergatik uzten duten bertsoraitza, kirola, musika... Bertsoa bereziki, hitza delako gure langaia. Eta batez ere emakumeak ez badu sentitzen bere iritzia entzuna izango dela, inoiz ez du ziurtasunik izango. Mutilak ere erortzen dira, baina zenbakiak ikusi besterik ez dago, eta motiboak desberdinak dira”.

“Entzuna ez izateari buruz, bertsoa ez da oholtza gaineko arloa soilik, inguru bat ere bada, eta mundu hori oso maskulinoa izan da. Oroitzen naiz, gure hasieratan, tratuan ere, mutikoak han zeuden koadrilan, eta gero zu zinen desberdina. Arazoa agian ez dut sentitu, baina bai diferentzi sentazio hori etengabe. Zuk diozunak garrantzirik duen, entzuten zaituzten... Bileretan eta berdin... Nik uste guk dugun sentazioa dela entzunak ez izatearena. Eta ez hitz egiten ez dugulako! Baizik zuk diozuna badirudielako haizeak daramala. Gero gizon batek esaten du zuk esan duzuna, eta jendearen erreakzioa da ‘jo, ona!’ Eta zu harrituta geratzen zara. Badirudi gure frekuentzia ez dela aditzen, eta hori sentazio oso desagradablea da. Txiste bat egiten duzu eta ez du graziarik. Gizon batek esaten du handik bi segundura, eta jendeak barre egiten du. Eta zu harrituta. Niri horrelakoak gertatu zaizkit. Baina jendeak a priori ez ditu belarriak irekitzen, entzuteko ea neska batek zer esango duen”.

“Eta gero daude emakume batek plazan izan ditzakeen arazoak. Nik batzuk aipatuko ditut. Batetik, inplikazioa. Emakume bat kantatzen entzuten dugunean zorrotz azterten dugu esaten duena beste emakumeok, Atxagak Madrilen hitz egiten duenean euskaldunok entzuten dugun bezala. Baina beste aldea ere badago. Paper horretan, nola bertsoaritzan emakume oso gutxi dagoen, zuk senti dezakezu ordezkari sentazio hori, eta kreatiboki ez da interesantea, eta bestela ere ez. Interesanteagoa litzateke barietate gehiago egotea. Zergatik kanta dezake gizon batek ‘canalla’ paperean eta emakume bat ez? (Ondoren, Iturriagarekin egindako txapelketako adibidea jarri du). Zuk, bakarrik bazaude, ideologikoki ere zerbait zabaldu nahi duzu, eta nahi duzu, eta nahi duzu... hiru bertsoarekin gizartea aldatu. Eta ez dago abaniko hori zabalduko duen nahikoa emakume.”

“Amaitzeko, gai hau nola landu, nola eragin... Judithek aipatu du, beti pelma izatearena. Denbora osoan honi buruzko aipamenak egiteak, nekoso sentazioa sortzen du, eta gerta daiteke ez izatea eraginkorra. Aldarrikapenak zuzenean egiteak, arriskua du, jendeak, lehenaz gain, belarriak tapatzeko. Bide zeharkakoagoa, sutilagoa, efektiboagoa dela iruditzen zait, ale txikika, luzeagoa den arren, eta latzagoa. Batez ere egin behar duguna da alerta egotea, denok, neskak eta mutilak, ze erreakzio inertiak ditugun, zer zuzendu nahi dugun, eta landu. Baina, beno, ez daukat oso argi nola egin behar den, dosiari dagokionez. Nire joera pixkanakakoa izan da, efektiboa izateari begira. Ez da aurretik erabakia izan, ondoren teorizatu dut”.

Judiht Montero: “Merkatu aldetik, aztertu beharko zenukete emakumezko publikoaren aukera. Orain arte gustura egongo ziren gizonetzkoak entzuten, gizonen gauzak entzuten, baina agian are gusturago egongo dira beste hainbat gauza entzuten ere”.

[Ondoren debatea hasi zen.

Ez dut errekuperatu debateko grabazioa, baina oroitzen dut neska gazteak, 18-20 urtekoak, nahiko ‘urruti’ sentitu zirela Judithen eta Maialenen ikuspegitik. Beraiek ez zituztela gauzak horrela bizirik esaten zuten. Nire iritzia da, batetik ‘konplexuak’ gutxitzen ari direla, baina bestetik gai hauekiko kontzientzia emakumeari geroxeago heltzen zaiola, 18-20 urterekin berdintasunean bizitzearen sentazioa duela, eta txokeak geroago perzibitzen dituela.

Ainboa Agirreazaldegiren Rekondo]